

Itxoiten

Koldo Sagasti

Erreumatologoaren itxarongelan nago zain. Hiru hilabete dira hitzorduaren esperoan nagoela, bost minutuko zitak nire bizi kalitatea hobetuko duen itxaropen antzuan. Harrera gelan nire egonaldia ari nagoa egitearren sega-potoaren pantailan nabigatzen berrogei minutu daramatzadala, atentzioa eman didan artikulu batekin egin dut topo. Javier Auyero etnografoaren liburu baten aipamena egiten du: “Estatuaren pazienteak”. Ikerketa lanean Txaseko Unibertsitateko soziologia doktoreak ondorioztatu du pobreei itxaronaraztea

gizarte kontrolerako tresna bat dela. Haren esanetan botereak itxaronaldiak baliatzen ditu herritar xumeak, gizarte maila apaleneakoak bereziki, zelatatze eta zigortzeko. Hala, itxarroteak sentimendu subjektibo bat eragiten du zain dagoenarengan, itxoitea bere eginbeharra dela sinetsarazten dio, bere gizarte estatusari dagokiona, eta itxaron-tartearen ostean saria jasoko badu, pazientzia handiko hiritar zintzoa izan behar du. Osasun sistema publikoaren bezeroa noizbait artatuko duten esperoan, etorkina bere egoera legala normalizatzeko duten paperen itxoite amaigabe-

an, leihatilako ilaran dagoena beste leihatila batera bideratuko duen funtzionarioaren aginduaren zain...

Itxaronaldia menderatze tresna bat da, botereak klase herrikoia azpian hartzeko baliatzen duena, errepresio erreminta sotila. Estatuaren pazienteak birritan gara paziente adiera polisemikoaren esanahiei erreparatzen badiegu: gaixoak garelako eta sinistuta gaudelako eraman handiz jasan behar dugula itxaron-denbora. Pribilegiatuentzat, berriaz, bestelako erritmoan mugitzen da sistema. Haiek beste maila batean bizi dira, abiadura handiko munduan. •

Kuadrillakeriaz

Itzea Urkizu
Arsuaga

Demagun iritzi zutabe bat idatzi beharra daukazula, udako solstizioa iristear denean. Demagun, asteburuan Kuadrilla Eguna dela zure herrian eta, testurako ideia zaparrada osatzen ari zarenean, begiradak “kuadrilla” hitzean geratu duela bere bidea, oroitzapenei ibiltzen uzteko.

Kuadrilla, tokatzen edo aukeratzen den lagun taldea. Gurasoen gonapetik gizartera salto egiteko eskubidea aitortzen dizun idatzi gabeko dokumentu ofiziala, eta parranda korroan egiteko ohiturari zentzua ematen dion arrazoi bakarra. Elkarrekin ikastera, elkar babestera, elkarri min ematera, lotzera edo askatzera eraman gaituen erakunde-sozial itxi eta zurrun hori.

Maite dut Kuadrilla Eguna nire herrian, baina nahiago nuke sailkatze horien beharrik ez duen festa baten adrenalina izateko; eta, bide batez, kuadrillen “-keria” guztiak ahaztu.

Demagun, kuadrilla batek talde argazkia ateratzea, eta zuri eskatzen diot zutela, mesedez, momentua izoztea. Demagun, ia 40 lagun –gizon– kamerari begira ari direnean, ahots batek zuri buruzko iruzkin bat oihukatzen duela, artaldearen anonimotasun gozotik, eta zuek ezer esan gabe egiten duzula, kamera bertan utzita. Demagun, ahotsa altxatu duenaren kuadrillako askori gehiegikeria iruditzen zaiela, zuk hori guztia jarrera matxistatzat hartzea.

Edo, imajina, beste norbaitek ezagunei gertu hitz egiteko edo gerritik heltzeko ohitura duela. Imajina, haren bizilagunak, bere gisara festan ari diren emakumeei goitik behera begiratzen diela, nabaritze moduan, eta, egoki deritzon, puntuazioa ere jartzen diola gorputz bakoitzari. Imajina, ohitura hori “bere ohitura” dela haren kuadrillan eta, gehienek, aspaldi erdietsi zutela norena den arazoa.

Bai, gaur Kuadrilla Eguna da gurean, eta gogotik ospatuko dugu bizitza; edo saiatuko gara. Hori bai, talde handietan, itxi edo irekietan, nahiz bi lagunekoetan, gauzei bere izenez deitu, pultsera moreak jantzi aurretik. Gora Kuadrilla Eguna, behera konplizitateak! •